

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure balorezko proposamena garatu dezagun, hau bera, bezeroei helarazi diezagun, bezeroekiko harremanak mantentzen dituzagun eta diru-sarrerak sor ditzagun ezinbestekoa da baliabideak erabiltzea. Funtsezko baliabideak lau motatan sailka ditzakegu: **baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.**

Baliabide fisikoei erreparatuz, gure produktua fabrikatzeko erabiliko ditugun baliabideek edota instalazioek osatzen dituzte. Pultseraren diseinua guk sortuko dugu eta gure produktua fabrika batek produzituko du. Guk “txip” enpresa bati erosiko dizkiegu txip-ak eta pultsera fabrikatuko digun fabrikari bidaliko dizkiegu gure produktuan txip-ak inkorporatzeko. Guk produktu bukatuak jasotzean denda jakin batzuei salduko dizkiegunez, ez dugu denda propiorik izango eta interneten bidez salduko ditugu. Hau guztia kontuan hartuta, gure baliabide fisikoak denda propioak, dendetako tresneria eta altzariak, eta internetetik produktua sortzeko erabiliko ditugun ordenagailuak izango lirake. Herrietan produktuaren kanpainak egiteko erabiliko ditugun tresneria ere baliabide hauen barnean sartzen dira.

Baliabide intelektualei dagokionez, diseinuak sortzeko imajinazioa eta sormena, informatikari buruzko ezagutzak, gaur egungo gizarteari buruzko ezagutzak eta gure produktua merkaturatzea ahalbidetuko duen merkataritza trebezia izango dira. Gure produktuak patenteak eta egile-eskubideak edukiko ditu, beste enpresek gure ideia kopia ez dezaten. Gainera, baliabide hauen barnean, jabetza-erregistroak, elkarteak eta bezeroen datu-baseak egongo dira, eta guk informazio hau kudeatuko dugu.

Bestalde, **giza baliabideak** ere izango ditugu, izan ere guztiok egingo dugu lan enpresan eta bakoitzaren kalitateak kontuan hartuta, bakoitzak lan-sektore batean lan egingo du. Amaia diseinua pentsatuz eta (Noraren laguntzarekin) merkaturatzeaz arduratuko da, Zahira eta Naroa administratzaile lanetan arituko dira, eta Andrea eta Nora egungo informazioaz jabetzeaz eta webgunea kudeatzeaz arduratuko dira.

Amaitzeko, **finantza-baliabideak** ere kontuan izan behar ditugu. Enpresa guk sortuko dugunez, hasieran gure aurrezkiak izango dira baliabide hauek; baina aurrezkiekin enpresa sortzeko adina dirurik lortuko ez dugunez, bankari epe luzeko mailegu bat eskatuko diogu.

Hainbat asoziazioei ere eskatuko diegu aportazioak egiteko. Esate baterako, emakumeen alde borrokatzen duten elkarteak gure proiektua erakargarri aurki dezakete (gure produktua eraso sexistak ekiditi ditzazkeelako), eta ekonomikoki inbertitzeko eskatuko diegu.

Hasieran galerak izango ditugu, normala den moduan baina enpresa aurrera egitea eta garatzea espero dugunez, merkatuan ondo kokatzea eta gure negozio guztia antolatzea lortutako unean, bankuari mailegua itzuliko diogu, izan ere, etekin handia lortzea espero dugu.